



Euskaraldia

11 egun euskaraz

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra

11 días en euskara

Desde el 23 de noviembre al 3 de diciembre

Zer egin dezakegu euskal hiztunok euskararen erabilera areagotzeko?

Galderak hainbat erantzun ditu, baina, guk, hizkuntza ohiturak astindu eta ohiko harremanetan euskara gehiago erabiltzeko ariketa bat proposatzen dizuegu: 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra, euskaraz hitz egiten edo ulertzen dugun guztion artean egin dezagun euskaraz. Euskal Herri osoan eta elkarrekin arituta, gure egunerokoan eragin genezake.

Nola egingo dugu?

Ondoko bi roletako bat har dezagun 11 egunez:

Ahobizi: Ulertzen duenari euskaraz egingo diot, hark erdaraz erantzun arren. Ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz egingo diet.

Belarriprest: Egidazu euskaraz, nik ulertzen dut eta. Agian erdaraz erantzungo dizut, baina zuk niri euskaraz egitea nahi dut.

¿Qué podemos hacer los hablantes euskaldunes para que aumente el uso del euskera?

Para empezar a cambiar nuestras costumbres lingüísticas y utilizar más el euskera en nuestras relaciones diarias, nos proponen el siguiente ejercicio: Que hablemos en euskera entre todos aquellos que hablamos o entendemos euskera desde el 23 de noviembre hasta el 3 de diciembre.

¿Cómo lo vamos a hacer?

Podremos adoptar un de los siguientes roles:

Ahobizi: Al que entiende euskera le hablaré en euskera, aunque me conteste en castellano. Con los desconocidos mi primera palabra, por lo menos, será en euskera.

Belarriprest: Háblame en euskera, ya que te entiendo. Quizá te conteste en castellano pero quiero que tú me hables en euskera.



Zer lortu nahi dugu?

Gure harremanetan hizkuntzarekin ditugun inertziak astintzea eta uste baino gehiagotan euskarazko komunikazioa posible dela frogatzea.

Euskal Herrian euskara ulertzen duen jendea pentsatzen duguna baino gehiago dela jabearaztea eta euskara gehiagotan erabili dezakegula ikusaraztea.

Hizkuntza ohiturak aldatzea norberaren hautua eta ariketa izan arren, bidea taldean eta batera, erosoago eta lagunduago egitea.

Euskara erabiltzeko testuinguru eta egoera berriak, abegikorragoak eta babestuagoak sortzea.

Non egingo dugu?

Bakoitzak bere inguruan, bere ohiko harreman sareetan egitea proposatzen dugu: familian, lagunartean, lanean, eskolan, dendetan...

Horretarako, herriz herri antolatuko gara, baita enpresa, ikasketa zentro eta era guztietako elkarte zein entitateka ere. Nahi duzun lekuan izena eman, eta ondoren, zure ingurukoekin parte hartu proposatzen dizugun ariketa honetan.

Nork har dezake parte?

16 urtetik gorako herritarrek eman dezakegu izena.

Ahobizi izateko, euskaraz hitz egiten jakin behar da.

Belarriprest izateko euskara ulertu behar da.

Irizpideak betez gero, norberak erabakiko du zein roletan izena eman.

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra, Ahobizi edo Belarriprest ikurra soinean eraman, eta hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa egingo dugu!

Eta bitartean, zer egin dezakegu?

Herriz herri eta hainbat enpresa eta entitatetan antolatzen ari diren batzordeetan parte har dezakezu. Herriko eragile eta euskaltzaleek antolatutako batzordeetan zure ekarpena egin eta inguruan Ahobizi eta Belarriprest berriak aktibatzen denok egin dezakegu gure ekarpena.

EMAN IZENA IRAILAREN 20TIK AURRERA:

-Gasteizko Gizarte Etxeetan

-Interneten: izenematea.euskaraldia.eus

-Oihaneder Euskararen Etxean